

FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

MUGALARIAK. MEMORIA

1. PROIEKTUAREN LABURPENA

Ilñakik hamar urte eta leuzemia ditu. Joxanek berrogeita sei eta gerra zibileko obus baten txatala buruan. Etorkizun bideragarririk ez duen ospitalean iragana eta oraina kateatzen dira. Itxarongeletan sekula agertzen ez diren pazienteen izenak entzuten dira.

Iraun beharraren gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa da *Francoren bilobari gutuna*.

2. PARTE HARTZAILEAK

KONPAINIAK

Le Petit Théâtre de Pain

1996ean sorturik, Le Petit Théâtre de Pain taldeak hizkuntza eta kultura desberdinetako 15 pertsona biltzen ditu. Hautu artistikoak modu kolektiboan egiten dituen konpainia da; antzerki herrikoi batera joan, eta antzerkirik ez den lekuetan aritzera ohitua, espazio publiko desberdinak baliatzen dituena beti antzerkian zorrozatasuna mantenduz.

Artedrama

Artedrama arte Eszenikoen Plataforma, ekintza, drama, antzerkia eta artearen lengoaiak ikertu eta sakontzeko bokazioarekin jaio zen 2007an Ander Lipusen gidaritzapean. Artedrama Plataformaren oinarri eta labore-lurra, antzerkia eta artea esateko eta izanarazteko gure herri honek dituen hitzak, hizkuntza eta ekintzak dira.

Dejabu Panpin Laborategia

Dejabu 2001. urtean sortu zen, hasiera-hasieratik txontxongiloekin lan egiteko helburuarekin eta istorioak kontatzeko modu berriak aurkitzeko bokazioarekin. Denborarekin, txontxongiloak eta aktoreak elkarrizketan jartzeko beharrak bultzatuta bidea jorratzen ari da taldea.

Bultzatzaile diren egitura hauekin edo hauetan dauden proiektu honetarako beharginak dira honakoak:

Zuzendaritza:	Ximun Fuchs
Idazkera:	Unai Iturriaga & Igor Elortza
Aktoreak:	Ander Lipus
	Patri Urrutia
	Manex Fuchs
	Zoila Berastegi
	Urko Redondo
	Pako Revueltas
	Erika Olaizola

Argiztapen diseinua:	Josep Duhau
Koreografia:	Philippe Ducou
Musika:	Asier Ituarte
Multimedia:	Eñaut Castagnet
Argazkiak:	Guillaume Méziat
Irudiak:	Ainhoa Resano
Web master:	Roberto Quintana
Administrazioa:	Iasone Parada
	Elorri Etcheverry
	Xabino Alkorta
	Kattalin Ezcurra
	Elise Robert Laudette
	Irantzu Azpeitia

EKIPAMENDUAK

- Baxe Nafarroako Herri Antzokia. Herriko gela (Izpura) eta Lutxiborda (Donazaharre).
- Orereta- Erreterria. Niessen Kulturguneko entsegu gela.

3. HELBURUAK

“*Francoren Bilobari Gutuna*” lanarekin bide hau hasi genuenean gure buruari markatu genizkion helburuak betetzen ari gara. Euskal Herriko plaza asko bisitatzeko ari gara, eta denetan izaten ari gara publiko ugaria.

Orain arte programatu duten aretoek sorpresaz eta pozez hartu dute bereziki publiko gaztearen afluentsia. Guk bezala, uste dute, esperientzia positiboa suposatuta duela target honentzat eta horren ondorioz fidelazazio prozesu baten hastapena sortuko dela euretariko askorengan.

Mediazioek aipatutako publiko horren existentzia ahalbidetzen dute, antzerkigintzara gertutatzen dute pertsona, izan haur, nerabe, gazte nahiz helduak. Komunikazio bat sortzen pertsona hoiekin, jarduera normalizatzen da, eta ikusle papera jokatzeko interesa duen komunitate aktibo bat eraikitzen.

Egoera honetara baina, ez gara kasualitatez iritsi, izan ere, sorkuntza prozesuan zehar ikusle potentzialekin lanketa sakonean aritu gara. Mediazioa hartu eman gisa ulertu dugu, publikoa arte eszenikoetan hezitzeaz gainera, sorkuntza prozesuan ekarpena egiten baitio sortzaileari berari ere. Hartzaile eta emaile, bi aldeak elikatzen dituen ekimena da guretzat bitartekotza. Eta urrunago joaten ere hausartuko ginatke, izan ere, bitartekaritza ez da estreinaldiarekin amaitzen, egonaldien amaierarekin; emanaldiz emanaldiz landu daitekeen eta behar litzakeen egitekoa da.

4. MEDIAZIO PROPOSAMENEN AZALPEN LABURRA

Antzezlan honen nolakotasunengatik, mediazio aukera bi izan genituen buruan hasieratik:

Batetik, interesgarria iruditu zitzaun, aurreko sorkuntza prozesuetan egin izan dugun moduan, antzerkiaren kreatzioa bera partekatzea, arlo artistikoa, bereziki arte eszenekoekin nolabaiteko harremana duten taldeekin, baina ez eskusiboki.

Bestetik, gaiari berari lotu nahi izan gatzazio lehenengoz. Ikastetxeetako nerabe eta gazteekin mamia landu nahi izan dugu. Hala nola, gure herrian hain zabalduak eta anitzak diren memoria taldeekin ere eseri nahi izan dugu, gure kontaketa aberastu eta antzerkiaren bitartez sendabide kultural kolektiboa eskaintzeko.

5. PROZESUAREN KONTAKETA FASEA

ABIAPUNTUA ETA AURREKARIAK

Hasteko, eta edozein talderekin mediazio ekintzak hasi aurretik, eskuragarria eta iraunkorra izango zen tresna sortzea pentsatu genuen. Horretarako "Francoren Bilobari Gutuna" antezlanerako sortutako webgunean atal berezi bat eskaini nahi izan diegu mediazioei. Ikerketa izenez batailatu dugu (<http://www.franco.eus/ikerketa/>) eta bertan sorkuntza prozesuan erabilitako hainbat material bildu dugu eta ahalegindu gara modu erakargarrian eskaintzen.

Bilduma hau gaiari lotzeko interesa izan zezaketen ikastetxeetarako erreminta gisa pentsatu genuen hasieratik, baina edozein irakasle, ikasle, antolatzaile nahiz ikuslerentzat baliogarria izan daitekeelakoan gaude. Eta izaten ari den harrera onak hori frogatu baino ez du egiten.

Gure dokumentazioa eskegitzeaz gainera, gure hasierako interes eta borondatea zen memoria historikoa lantzen duten taldeekin elkartzea eta gure emanaldien daten inguruan eurek zerbait egitera animatzea, gure difusioaren aitzakian, bisibilitatea emateko egiten duten lanari, eta aldi berean, nola ez, antzerkera hurbiltzera lortzeko, normalki joaten ez den jende mota.

Zenbait bilera egin ditugu (Errenteria eta Iruñean kasu) baina zoritxarrez, kale egin dugu lan honetan. Zaila da elkarten erritmoa gure lan erritmora egokitzea, eta ohitura falta ere badago horrelako proposamen irekien aurrean. Segituan sortzen da "baina gugandik zer nahi duzue zehazki?" galdera eta zaila da ulertarazkea, eskua luzatzera baino ez gatozela, altaboz lanak egitera beraiek lantzen duten gaitz kolektibo bati.

Dena den, ez dugu etsitzen bide honetan, eta beharbada hurrengo proiektu batzuetan, honetan egindako akatsetatik ikasiaz urrunago heldu gaitzke alor honetan. Ez da erabat hutsala izan esfortzua dena den: Iruñeako NAEn gure emanaldiaren dataren bueltarako erakusketa bat antolatu zen eta egunean bertan material audiobisuala salgai jarri zen.

GARAPEN FASEA

Bitartekaritza ekintzei beraiei dagokienez, batzuk egonaldi garaian gertatu dira:

2016/05/04 Errenterian, Niessen Kulturgunean, Dejabu Panpin Laborategiak gidatzen dituen antzerki tailerretako ikasleekin partekatu dugu entsegu ireki bat.

2016/10/14 Luhuson, Harri Xuri gelan, Kanboko Xalbador Kolegioko eta Baionako Etxepare Lizeoko 103 ikasle izan ditugu lanaren etapa bat ezagutzen.

*(egonaldi hau ez berez, ez zen Mugalariak programak eskainia, baina berdin interesgarritzat jo dugu mediazioen dinamika gure egin eta harekin jarraitzea aldi honetan ere)

Ondorengoak berriz, egonaldietatik kanpo:

2016/11/25 Azaroaren 19an eskainitako Donibane Garaziko emanaldian ikusle gisa egondako Baigorriko Pujó Kolegioko 36 ikaslerekin antzerki beroketa laburra eta gaiaren tratamendua.

2016/11/25 Azaroaren 19an eskainitako Donibane Garaziko emanaldian ikusle gisa egondako Citadelle Kolegioko 23 ikaslerekin antzerki beroketa laburra eta gaiaren tratamendua.

2017/93/24 Miarritzen emanaldi bat Baiona eta Kanboko 250 ikuslerentzat, Biarritz Culture eta Hamekak antolatutik. Ikuskizunaren ondotik, irakasleek proposatutako mediazio eskaerei erantzungo diegu. Taldeko

aktoreak ikastetxeetara joango dira ikasleekin lana sakontu ahal izateko.

*(antolatua dagoen baina oraindik gertatzeke dagoen ekintza hau ere Mugalariak programatik kanpo egon arren guretzat, beharrezkotzat jo dugu)

ITXIERA FASEA

Iristear dagoen Miarritzeko lanaz gain, gure antzezlanaren birak iraun bitartean, irekita gaude sortu litezkeen elkartruke edo elkarlan proposamen berrietara, egonaldietatik kanpo ere, aukera badagoelako prozesua partekatzeke, dela gaiari berari helduz, edo dela antzerki teknikak, ahots beroketak edo entrenamenduak partekatuz.

Bestetik, bira amaitutakoan ere sarean uzteko asmoa dugu egindako ikerketa, Franquismoaren gaia bereziki ikasleekin lantzeko baliabide zinez eraginkorra izan daitekeelakoan.

Ez dago ezer finkatua, baina ziur datozen proiektuetan ere aukera egongo dela bereziki eskolekin egindako harremak berpiztu eta ikasleekin mediazio ekintzak antolatzeko.

6. BALORAZIOA

.- Zertarako balio izan dizue egonaldiak?

Antzezlan hau sortzeko elkartu garen hiru taldeek, badugu eskarmentu zerbait egonaldika lan egitean. Urteak dira molde honetan lan egiteko hautua egin genuela, sinetsita taldeen egiturari berari bakarrik ez, eta obrari berari ere intentsitate honetan lan egiteak onura baino ez diola ekartzen. Egonaldi denboran, dedikazioa erabatekoa da sorkuntzari eta horrek derrigor fruituak ematen ditu.

.- Zer suposatu du ekipamendu hauetan lan egiteak?

Harremanak sendotzeko balio izan du gehien bat. Ezagutzen genituen bai Errenteriako eta baita Garaziko espazioak, baina bertan egun batzuk emateak, hurbiletik euren lana ezagutu (gu bertan hartzetik haratago euren jarduera osotasunean ezagutzeko), euskal antzerkingintzaren panoramari buruzko gogoetan elkartrutako eta gure jarduerak emanaldietatik haratago benetan zer nolako eta zenbat lan suposatzen duen azaltzeko aukera eman digu.

.- Nolakoa izan da arduradunekin harremana?

Oso ona egia esateko. Batean nahiz bestean, erreztasunak besterik ez ditugu topatu gure lana aurrera eraman ahal izateko. Nabaria da dena den, ekipamendu batek ez duenean modu egonkorrean pertsona bat mediazioen antolaketan. Horren egonaldi laburretan, oso zaila da talde artistikoarentzat delako herriarekin benetazko harreman bat sortzea, bide hori pixkat ibilia egoteak lana asko erraz lezake, eta emankorrago bihurtu.

.- Parte hartu al duzue aurretik mediazio jardueretan?

Aurretik aipatu bezala, egonak gara aurretiaz ere egonaldikako sisteman lanean, eta horrek bultzatuta nolabait, izan ditugu mediazio lanak egiteko aukerak. Mediazio hauek bereziki ikastetxeetako ikasleekin egin ditugu, talde egituratua direlako, euren programan naturalidadez txertatuta dagoelako sorkuntza prozesuak ezagutzera hurbiltzearen dinamika eta ekipamendu eta irakasleen arteko laneko harremanak finkatuak daudelako dagoeneko.

.- Zer irabazi duzue mediazio proiektuaren bidez?

Egindako entsegu irekiei esker, nolabait neurria hartu ahal izan diogu antzezlanari. Erakusteari esker, eta ikasleek ez dutelako konplaziente izateko borondaterik, gure lana testatu ahal izan dugu estreinaldia aurretik.

.- Prozesu hauek zuen praktketan txertatzeko plana duzu?

Orain arte egin bezala (eta ez bakarrik proiektu honekin), hartzaile diren ekipamenduen eskariei jarraituz mediazio lanei erantzungo diegu bai, sorkuntza propioentzat aberasgari delako, baina baita ardura hartzeko zale berrien formakuntzan.

.- Zeintzuk lirateke metodología honekin jarraitzeko praktika eta beharrak?

Egonaldiak behar bezala egiteko, bereziki hegoaldeko ekipamenduak ez daude desira litekeen bezala prestatuak. Aretu baten erabilpenaren aukerak badaude han hemenka, baina sorkuntza bat ez da aretoko lanera mugatzen, ez behintzat fase guztietan, eta estali beharreko beste hainbat behar daude (otorduak, eraikuntzarako espazioak, lo egiteko lekuak...). Horietan gelditzen dira antzokiak hankamotz; hor dago exhibizioko espazio bat sorkuntzarako lagatzearen eta sorkuntza fabrika batean lan egitearen arteko aldea. Alor horretan badago lan bide luze bat egiteko.

7. GLOSARIOA

- Ametsak
- Belaunaldia
- Maitasuna

8. IRUDITEGIA